



Begirada kritikorako 10 gako

Iritzi propioa eta osatua izateko bideak daude, ez dugu aitzakiarik.

1. Zure usteak zalantzan jarri; aurreiritzirik ba al duzu?

Normalean, gizakiok gure pentsamenduak berresteko joera dugu eta askotan horretan lagunduko digun informazioa bilatzen dugu soilik. Baina gure ikuspegia zabaltze aldera, komeni da noizbehinka gure usteak zalantzan jartzea, oso erraza baita aurreiritziak izan eta ez konturatzea.

2. Egoera ezberdinak identifikatu, ondo interpretatu, behatuz eta esperimentatuz.

Egungo gizartea oso aldakorra da eta bizitzan aurrera goazen heinean, egoera berriei aurre egin behar diegu. Gai izan behar dugu, bai aurrez aurre, bai Interneten ere, bizi ditugun egoerak identifikatzeko, ulertzeko, eta modu egokian kudeatzeko.

3. Informazio zuzena bilatu; zer diote adituak?

Hainbat gairen inguruan jasotzen dugun informazioa kasu askotan oso azalekoa edo mugatua da, eta beste askotan ez da zuzena. Azken urteotan oso ohikoa da titularrak irakurri eta horiekin bakarrik geratzea. Baina errealitatea konplexuagoa izaten da, eta ondo ulertu ahal izateko informazioa eta datuak behar ditugu. Horretarako, balizko datuak non topa ditzakegun jakin behar dugu, adituak identifikatu eta beraiek esaten dutena ezagutu. Hori da gure pentsamendua osatzeko modurik egokiena, datuetan oinarritu eta adituen esana kontuan hartzea.

4. Albiste faltsuak (fake news) identifikatzen ikasi.

Infokazioaren garaian bizi gara, informazio guztia eskura dugu, baina horrek ez du esan nahi informazio hori guztia zuzena denik. Sarean badaude manipulatuak berriak, irakurle/ikusleengan ezkutuko iritzi bat sustatzeko sortuak: Fake news edo albiste faltsuak. Titularrak erabiltzen dituzte baldintzatutako informazioa emateko. Hauek identifikatzeko gai izan behar dugu, eta horretarako garrantzitsua da iturri fidagarriak topatzen jakitea, datuak eskaintzen dituztenak, egiaztatze aukera ematen dutenak.

5. Galderak egin, bai geure buruari, baita besteek ere. Ez dugu zertan dena jakin.

Etengabe konektaturik egoteak eta komunikatzeko hainbeste gune eskura izateak uneoro eta gai guztiei buruzko iritzia ematera bultzatzen gaitu. Baina ez dugu beti ondo osatutako iritzia izan beharrik, badira menderatzen ez ditugun edo ezagutzen ez ditugun gaiak. Horregatik, garrantzitsua da galderak egitea, iritzia osatu ahal izateko informazioa biltzea.



6. Eztabaida eta hausnarketa sustatu.

Eztabaida berez ez da negatiboa, nahiz eta azkenaldian konnotazio hori eman zaion. Eztabaidatzeak ikuspegi ezberdinen arteko ulermenera eramane gaitzake, komunean ditugun puntuetara. Azken finean, eztabaidak hausnarketa ekarri behar luke, norberarentzako ikasketa aberasgarria izan behar luke. Beraz, eztabaidatzeko eta argudio propioak sortzeko gai izan behar dugu. Gai ezberdinei buruzko gure iritzia pixkanaka sortu eta osatzeko aukera dugu; horretarako iturri egokiak bilatu behar ditugu eta beharrezko denbora eskaini; irakurri, hausnartu... Eta eraikiko ditugu eztabaidarako argudio sendoak.

7. Argudioak ematean, arrazoituak eta datu errealetan oinarrituak direla ziurtatu.

Gure argudioak ematean arrazoitu egin behar ditugu. Eztabaida hutsean aritzeak ez du zentzurik, ez darama inora, guztiz antzua da argudio arrazoituak ematen ez badira.

8. Arriskuak aurreikusteko gaitasuna izan.

Interneten aukera mordoa dugu hobetzeko, gauza berriak ezagutzeko, pertsona berriekin komunikatzeko; baina baita arriskuak ere, hainbeste ez badira ere. Topa ditzakegun arrisku horiek identifikatzen jakin behar dugu, aurrea hartu, saihestu, gehiagora joan baino lehen.

9. Arazo ezberdinen aurrean nora jo jakin behar duzu, baita zuhertasunez jokatzeko ere.

Interneten, bizitzan bezala, hainbat egoera desatsegin topa daitezke. Zenbaitetan ez dugu izango egoera horien aurrean erreakzionatzeko gaitasun edo erremintarik izango; baina, nolana ere, laguntza non bila dezakegun jakin behar dugu.

10. Pertsonak eta jokaerak epaitzeko joera kontrolatu; ez dugu testuinguru osoa ezagutzen.

Orokorrean, gure bizitzan eta, bereziki, sareetan, ikusten duguna epaitzeko joera handia dugu, egin dezakegun kaltea kontuan izan gabe. Baina aurrean dugun egoera edo pertsonaren testuinguru ez dugu beti ezagutzen eta, hortaz, gure pentsamenduak okerrak izan daitezke. Gainera, lehen aipatu dugun bezala, ez dugu ikusten dugun guztiaren gaineko iritzi bat izan beharrik, eta are gutxiago iritzi hori plazaratu.

